



Euskaltzaindiaren Batzar - Agiriak

**Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1934 -ko
Ibeltzaren 29-an.**

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Intza, Altube, Lakonbe. Urgazleak: Ormaetxea, Belaustegigoitia, Oleaga ta Gorostiaga. Otoitzez asi da.

I.— Altube jaunak oarpide batzuek ekañi dizkigu, esku-artean darabilgun Iztegi beñirako.

II.— Iztegi ontarako itz beñi bila ibili gera.

III.— Aita Mokoroak bildutako euskal-itz beñi batzuek, Aita Intzak irakuñi dizkigu.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi dira. Otoitzez amaitu da.

**Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1934 -ko
Ibeltzaren 30 - an.**

Bildu diran euskaltzainak, aurreko batzar - agirian aipatzen diranak. Urgazleetatik Ormaetxea, Belaustegigoitia ta Gorostiaga. Otoitzez asi da.

I.— Aita Intzak berak bildutako itz batzuek irakuñi dizkigu.

II.—Azkue jaunak iru idazki dakarzki ta irurak irakuri dizkigu: 1.^{goa} *La familia de apropos*. 2.^{na} *Abuso que se hace del sufijo -kin* ta 3.^{na} *Gipuzkera osotua*.

III.— Rache jaunak, Burdeosko izkuntz-irakasleak, bere ikastetxe edo Burdeosko Unibersidadean mintzakeren-ikastaro bat iratsi nai luke. Oraindaño ango Gobernuak eragozpenen batzuek jartzen dizkio. Urkijo jaunak dasa, egoki litzakela jaun oni zerbaitez laguntzea, oñela edonork ikusi dezan geon arteko atsegiña dala.

Euskaltzaindiak erabaki du 100 pezeta igortzea jaun oñi eta bere lanetan, dezakegunez, urgazle izan-go gaituela adiraztea. 100 oiek etzaizkio bialiko, alik eta bere lanen sorozpidea zabaltzen duen arte.

IV.— Altube jaunak, len Iztegian ipiñitako itzaren *Instrumentatze*, *instrumentakuntza*-ri bidez, oarpide batzuek egin dizkigu.

V.—Jaun oñek berak, EUSKALTZAINDI-ko Diruzai danez, esku artean darabilkien dirutzaren gora-berak agertu dizkigu.

VI.— Gorostiaga jaunak bere lan batzuek irakuri dizkigu. Berezien: *El verbo vasco y el semítico*. *Etimologías* ta abar.

Beste gairik izan ez da, otoitzez bukatu da batzar-aldia.

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1934-ko Otsaiñaren 22-an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Altube, Lakonbe, Elissalde, Olabide. Urgazle jaunak: Belaustegigoitia, Oleaga ta Manterola. Otoitz egin da.